

BIDEZ-BIDE ZERBITZUA

Erreza da ibiltzea...

BIDEZ-BIDE ZERBITZUA



690 76 94 66

GIDARIA



**BEHEMENDI**  
LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA



OIARTZUNGO  
UDALA



Lezoko Unibertsitateko Udala



ERRENERIAKO UDALA



Behar duzunean herrira joateko

Erosketak egin, paseatu,  
lagunekin egon, medikura joan ....





Oiartzun, Lezo eta Errenteriako Udalek Behemendi Landa Garapen Elkartearekin batera, landa eremuko biztanleen gizarte beharren diagnostikoak egin dituzte bakoitza bere herrian. Beharren artean garraio arazoa azaldu da nabarmen diagnostiko hauetan, honenbestez baserrira iristeko garraio publikorik eta gidatzeko karnetarik ez izateak isolamendu arazoak sortzen dituztela ikusi da.

Arazo honi aurre egiteko, Oiartzun, Lezo eta Errenteriako Udalek Behemendi Elkartearen laguntzarekin, proiektu berri hau landu dute. Landa ingurunean eta sakabanaturik bizi diren biztanleen bizi kalitatea hobetu nahian BIDEZ-BIDE zerbitzua martxan jariz.

**BIDEZ-BIDE** zerbitzuarekin, mugikortasun arazo handiak dituzten pertsonen eta landa ingurunean bizi diren adineko pertsonen aukerak eman nahi zaizkie «ez ohiko» eginkizunak (medikura joan, erosketak egin e.a.) beren kabuz egin ditzaten. Honetarako, furgoneta egokitu baten zerbitzua eskaintzen da astelehenetik- ostiralera, 8:00etatik 12:00etara, non onuradunak bere herriko erdigunera jaisteko aukera izango du, etxerako buelta txoferrarekin adostuz.

### Zerbitzu honen helburuak:

1. Erabiltzaileek autonomia gehiago lortzea.
2. Beren kabuz mugitzeko zailtasun handiak dituztenei gizarte gorabeheretan gehiago parte hartzen lagundu.
3. Gizarte bazterketa saihestea.
4. Hiri eta landa eremuko harremanak eta loturak mantendu eta bultzatzea.
5. Pertsona ahal den neurrian bere ingurunean mantentzea.
6. Hirigunera hurbiltzeko zailtasunak saihestea.

Programa honetan parte hartzeko informazioa eta izen ematea nahi baduzu deitu zure herriko gizarte zerbitzuetako bulegoetara.

OIARTZUN ☎: 943 49 05 52

LEZO ☎: 943 52 10 94

ERRENTERIA ☎: 943 44 96 04